

Irudi Hizkuntza

Marratzu al ditzakezu irudiak
esaten ditudan hitzetarako,
gauzetarako?

Orduan marratzu
zulo bat egunean,
hotza,
haizea,
koskor bat zintzurrean
edo zorte txarra,

marratzu ezul bat,
hasperen bat,
ogi egin berriaren usaina,
denbora,
une bat,
egitasmo baten
hasiera edo amaiera,

marratzu lekua non noizbait,
non inoiz ez,
non laster,
zerbait gertatuko den,
marratzu bultzada baten mina,
itsasoaren ahogozoa.

Hainbeste gauza
ikusi nahi ditut,
maitasuna adibidez,
beranduago,
egunen batean eta agian.

Egin irudiak
nire poemarako,
eta sentitu aske:
hitz hauek
zureak baitira
nigandik sortu arren

Rian Visser
Itzulpena:
Iñaki Mendiguren

iBbY INTERNATIONAL

2025eko
apirilaren 2a

CHILDREN'S

BOOK

DAY

HAUR
LIBURUAREN
NAZIOARTEKO
EGUNA

Hitz hauek zureak dira nigandik
sortu diren arren.

Son tuyas estas palabras
que han salido de mi boca.

Aquestes paraules són teves
encara que surtin de mi.

Estas palabras que saïron
da miña boca son para ti.

Deze woorden zijn van jou,
ook al kwamen ze uit mij.

Même s'ils viennent de moi,
tous ces mots sont à toi.

These words belong to you,
even though they came from me.

هذه كلماتك،
وإن صدرت مني.

Bertsua
Rian Visser

Ilustrazioa
Janneke Ipenburg



Rian Visser (1966an jaioa) haur-liburuen idazle eta poeta holandarra da. Liburu dibertigarri eta zirraragarriak idazten ditu, haurren interesei ezin hobeto erantzuten dietenak. Janneke Ipenburg ilustratzailearekin batera, *Alle wensen van de wereld* (2021) eta *Het is een zachte dag vandaag* (2024) poesia-bildumak sortu ditu. 2022an, Rian Visser-ek Zilveren Griffel (Zilarrezko Eztena) bat eta Gouden Poëziemedaile (Poesiaren Urrezko Domina) irabazi zituen.

Rian Visser oso aktiboki aritzen da hezkuntzan. Sormenezko idazketa eta irakurketaren sustapenari buruzko ikasgai digitalak diseinatzeko lan egiten du, irakasleek doan erabil ditzaketenak. 2024tik 2026ra Holandako 'Children's Laureate' izendatu dute ofizialki.

www.rianvisser.nl



Janneke Ipenburg (1979an jaioa) haurrentzako liburuen ilustratzaile holandarra da. Bi poema-bilduma egin ditu Rian Visser-ekin, *Het is een zachte dag vandaag* (2024) barne. Egile eta ilustratzaile gisa, *Voor altijd bij jou* (2023) liburu irudiztatua sortu du, distantzia ikaragarria izan arren konektatuta egoteari buruzko istorioa.

Ilustratzaile lanaz gain, animaziozko hainbat filmetan lan egin du Jannekek, eta gaur egun pertsonaien diseinatzaile gisa ari da lanean *stop-motion* animaziozko film txinatar handi batean. 2023an, Munduko Ilustrazio Sarien finalisten zerrendan izan zen Janneke.

www.jannekeipenburg.com